



XXXVI. UDA IKASTAROAK DONOSTIAN XXIX. EUROPAR IKASTAROAK

Gaia: EUSKADIN KULTURA-ONDASUNAK BABESTEKO ARAUBIDEAK BEREKIN DAKARTZAN ARAZOAK

Helburua:

Kultur ondareak badu babesteko araubide bat, Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legean bildutakoa. Lege horretan garatu den arau-esparruaren bidez, ondasun higigarri, higiezin eta materiagabeek, kultur baliorik baldin badute, babestea merezi dute.

Kultur ondasunak iraunaraziko badira, euskal botere publikoek ondasun horiek babestu, iraunarazi eta balioesteko agindua jaso behar dute. Kulturaren gaineko legeriak eskumen-banaketa konplexua ezartzen du euskal erakundeen sarea (Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak eta udalak).

Bestalde, ondasunen jabeek ere horiek iraunarazi, zaindu eta behar bezala babestu beharra daukate, ondasunak osorik iraungo dutela ziurtatzeko, eta galdu, suntsitu edo hondatu ez daitezen.

Aldi berean, Euskadin elkarte-sare zabal bat dago, eta, legerian jasota dagoen herri-ekintzak bultzatuta, bere helburuen artean dauka kultur ondarea herri-administrazioen aurrean defendatzea.

Erantzukizun publiko eta pribatu partekatu horrek errealitatean gatazkak sortu ditu jabeen, administrazioen eta elkarten artean, eskubide eta betebeharrak horiek zuzen baliatzea dela eta.

Urte hauetan barrena, Arartekoak zenbait jardura burutu ditu beraien historia, arkitektura, arkeologia edo paisaia balioagatik babestuta dauden kultur ondasun horiek onartu eta babestearen inguruan.

Arartekoak, jardunaldi hau antolatuz, eztabaida piztu nahi du botere publikoen eta euskal kultur ondarea babestea ardura zaien taldeen artean.

Oharrak:

Formatu malgua lortu nahi da, parte-hartzea bultzatzen duena, elkarrizketa eta eztabaida ahalbidetzeko.

Hartzaileen artean izango dira, unibertsitaterako ikasleek gain, herri-administrazioetako langileak, gizarte-erakundeak, kultura arloan laguntzen duten erakundeak eta talde politikoak.



EGITARAUA

2017ko uztailaren 6a. Miramar jauregia. Donostia

- 9:15 **Agiriak ematea**
- 9:30 **Ikastaroaren hasiera**
Arartekoa eta EHUko ordezkaria
- 10:00 **I. ponentzia:**
"Italiako legeriaren eskarmentua kultur ondasunak defendatu eta babesten"
Hizlaria: Paola Bilancia. Konstituzio Zuzenbideko katedraduna. Milango Unibertsitatea
- 10:40 **Eztabaida**
- 11:00 **Atsedena**
- 11:30 **II. ponentzia:**
"Kultur ondarea babestu eta defendatzea Estatuko, autonomia erkidegoko eta tokiko legerian"
Hizlaria: Juan Manuel Alegre Ávila. Administrazio Zuzenbideko katedraduna. Kantabriako Unibertsitatea
- 12:10 **Eztabaida**
- 12:30 **III. ponentzia:**
"Kultur ondasun materiagabea babestea Euskal Herriko araudian: analisia eta proposamenak"
Hizlaria: María Ángeles Querol. Historiaurreko katedraduna. Madrilgo Complutense Unibertsitateko Geografia eta Historia Fakultatea
- 13:10 **Eztabaida**
- 13:30 **Goizeko saioaren amaiera**



15:30 I. mahai-ingurua

Kultur ondarea (administratiboa, penala eta soziala) kontrolatzeko tresnak eta kultur ondarea babesteari buruzko kasu zehatzak eztabaidatzea

Koordinatzailea: Carlos Barcina. Arartekoko ingurumen arloko arduraduna

- Antonio Vercher Noguera. Estatuko Fiskaltza Nagusiko ingurumen eta hirigintza arloko fiskal koordinatzailea
- Koldo Olabarrieta. Ertzaintzaren Ondarearen kontrako Delituen Atal Nagusiko burua
- Juan Carlos Gómez Calleja. Ertzaintzaren Ikerketa Kriminal eta Polizia Judizialaren Atal Nagusiko Ingurumen eta Hirigintza arloko burua
- Alberto Fernández-D´Arlas de la Peña. Áncora elkarteko ordezkaria
- Javier Puertas. Industri Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkarteko presidentea

16:45 Eztabaida

17:15 II. mahai-ingurua

Kultur ondarea kudeatzearen erronkak. Politika publikoak eta kasu zehatzak

- Imanol Agote Alberro. Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultur Ondarearen arloko zuzendaria
- Andoni Iturbe Amorebieta. Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskara eta Kultura Saileko Kultura arloko zuzendari nagusia
- Isabel Pineda. Gasteizko Udalaren 21 Zabalgunea elkarteko arkitektoa
- Claudia Pennese. Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak Gipuzkoan duen Ordezkaritzako arkitektoa eta batzordekidea

18:30 Eztabaida

19:00 Itxiera